

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUHATZU DONEMILIAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2020ko lehenengo seihilekoko ordainagiriak borondatezko epean ordaintzea

Zuhatzu Donemiliagan, etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2020ko lehen seihilekoa) ordaindu behar dutenen errolda egin da. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek Araban dagoen Zuhatzu Donemiliagako Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek, orobat, bete egiten du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Zergen Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2020ko abuztuaren 28an hasi eta irailaren 28an bukatuko da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2020ko irailaren 28an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Zuhatzu Donemiliagako Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa, ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekarguarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zuhatzu Donemiliaga, 2020ko uztailaren 27a

Lehendakaria

ELVIRA RESANO MARTÍNEZ DE ANTOÑANA